

HAURRENTZAKO KARTEL LEHIAKETARAKO OINARRIAK. AMURRIOKO JAIK 2017

1. Lehiaketa honen helburua 2017ko Amurrioko jaietako haurrentzako kartel ofizialaren hautaketa da. 2003 urtetik aurrera jaietakoek hartu ahal izango dute parte.
2. Lanaren luze-zabala 29,7 zm. X 42,0 zm.takoa (DIN A3) izan beharko da, bertikal tankeran.
3. Lanak *“Amurrioko Jaiak 2017”* ez ezik *“Andra Mari eta Done Errokeren Ohorez”* ere idatzirik izan beharko du azken esaldi hori elebidunetan, era berean, euskarazko testua eta Amurrioko armari berria nabareraiz edo armaria non kokatu azalduz.
4. Saria eskola materialean erabili beharko den 60 eurokoa izango da, eta 30 euroko bi akzesit ezartzen dira.
5. Parte hartzaile bakoitzak gehienez lan bat aurkeztu ahal izango du, originala eta teknika libre erabiliz. Aurreko lehiaketan aurkeztutako lanek ezin izango dute parte hartu.
6. Lanak aurkezteko epea: 2017ko apirilaren 3etatik 21era bitartean, Amurrioko Kultur Etxean, Landako Kalea 8, 01470.
7. Kartelak inolako datu pertsonalik gabe aurkezteko dira, eta kartelaren atzekaldean goiburua baino ez da jarriko. Lanaren goiburu berak azaldu beharko du beste gutun-azal baten kanpoaldean. Bigarren gutun-azal honetan lehiakidearen izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea sartu beharko dira.
8. Helduen kartel lehiaketarako epaimahia berdina izango da.
9. Sarituak izan ez diren lanak jasotzeko hogeitamar egun epea gaituta, Amurrioko udalaren esku geratuko dira inolako erreklamazio eskubiderik gabe.
10. Sari banaketa 2017ko maiatzaren 12an izango da, 20:00etan, *“Bañueta”* udal kiroldegiaren atondoan. Egun horretan bertan inauguratuko da ekainaren 2ra arte zabalik izango den erakusketa.
11. Sariztatutako kartela Udalaren jabetzapean geratuko da, eta beroni komeni dakion era eta egunean erreproduzituko da.

Amurrio, 2017ko otsailaren 10an